



***EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IJITO
HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO
ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO
KONTSEILUA***

2006. URTEKO JARDUNEN MEMORIA

***Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko
Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren
2007ko apirilaren 24ko osoko bilkuran aurkeztua***

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
I. KONTSEILUAREN 2006. URTEKO JARDUERA	
a) Kontseiluaren Osoko Bilkura	4
b) Batzorde Iraunkorra.....	4
c) Lan Batzordeak	5
▪ Ijito Batzordea	5
▪ Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea.....	6
▪ Osasun Batzordea.....	7
▪ Etxebizitza Batzordea.....	7
II. KONTSEILUAREN BESTE ZENBAIT JARDUN	
▪ EAEko Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlana	9
▪ “ <i>Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herria: aniztasunaren alde, diskriminazioaren aurka</i> ” jardunaldiak	10
▪ Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra.....	11
▪ Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua	12
▪ <i>ROMA</i> In proiektua	12
▪ <i>Koheslan</i> Ikerketa Taldea/Proiektua (EHU).....	13
▪ Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua	14
III. KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA	
▪ Kontseiluari laguntzea	16
▪ Planaren jarraipena	16
▪ Informazioa kudeatzea	17
▪ Beste ekintza batzuk	18
▪ Helburuak	19

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluak eta haren baitan sortutako batzordeek 2006. urtean egindako jardueraren laburpena da honako memoria hau. Memorian, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Planaren arabera Kontseiluaren erantzukizuna diren jardun batzuk jasota daude.

2007. urtean, hiru urte izango dira Kontseilua eratu zena (2004ko otsailaren 23ko osoko bilkuran eratu zen formalki). Kontseilua sortzen eta arautzen duen 289/2003 Dekretuaren 7.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontseilukide-karguaren iraupena hiru urte da eta, beraz, kontseilukide batzuk berriz hautatu edo ordezkatu beharko dira aurten, Kontseiluak Foru Aldundietan eta ijitoen elkarteetan eta ijitoen aldekoetan dituen ordezkarien kasuan behinik behin. Izan ere, 2005eko apirilean izandako hauteskunde autonomikoen ondorioz sortutako Jaurlaritzaren osaera berriak eraginda izan ziren aldaketa guztien berri eman zuten Eusko Jaurlaritzaren Sailek, eta Emakundek ere beste horrenbeste egin zuen, erakunde horretako zuzendaritzan izandako aldaketaren ondorioz. Gainera, Memoria hau aurkeztu denean, ijitoen komunitateari lotutako erakunde berriak sartzeko prozesua abian da dagoeneko, eta bi elkarte daude Kontseiluan sartzeko prozesuan. Biak emakume ijitoen elkarteak dira, eta hemendik gutxira hasiko dira Kontseiluan aktiboki parte hartzen.

Urtean zehar, Kontseiluaren funtzionamenduan modu batean edo bestean eragin duten hainbat gorabehera izan dira. Hasteko, eta aurrerago azalduko dugunez, kideen borondateaz gaindiko arrazoiak direla-eta, Kontseilua arautzen duen 289/2003 Dekretuan aurreikusitako osoko bi bilkuretatik bakarra egin da. 2006. urtean, Kontseiluaren Osoko Bilkura behin bildu da, hain zuzen ere martxoaren 20an, Gasteizen. Lan-batzordeen funtzionamenduari dagokionez, Osasun Batzordeak eta Batzorde Iraunkorrak ez dute jarduerarik izan 2006an. Hurrengo orrialdeetan, batzorde guztien aipamen zabalagoa egingo dugu.

Kontseiluaren jarduera aipagarrienen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu: Planean aurreikusitako jardunaldiak, EAEko Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlana, beste proiektu batzuetan izandako parte-hartzea (ROMAIn, Koheslan) eta beste Kontseilu edo antzeko organo batzuetan sartu izana, zenbaitetan gure Kontseilu hau ordezkatzeko (Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren eta Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorren kasuan), eta beste batzuetan elkarteen ekimenez (Ijito Herriaren Estatuko Kontseiluaren kasuan).

Ondorengo orrialdeetan, horren guztiaren berri emango dugu, eta Ijitoen Komunitatearen erabateko sustapenean eta ijitoen kulturaren defentsan eta sustapenean konprometitutako alderdi guztiek Kontseilua arautzen duen Dekretuan aipatutako elkarbizitza harmoniatsua lortzeko 2006. urtean egindako lana islatzen saiatuko gara.

KONTSEILUAREN 2005. URTEKO JARDUERA

a) Kontseiluaren Osoko Bilkura

2006. urtean, Kontseiluaren Osoko Bilkurak bilera bakarra egin du, martxoaren 20an, Bilbon. Bilera horretan, besteak beste, Kontseiluaren 2005eko jardueren Memoria aurkeztu zen, eta oniritzia eman zitzaion 2005eko jarraipen-txostenari eta 2006ko jardunen urteko programari.

Halaber, hainbat erabaki hartu ziren Kontseiluari (aktei) eta Planari buruzko informazioa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orrira iraultzeko moduaren eta edukien inguruan. Horri lotuta, web-orriko edukien gidoia Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordean berrikusteko erabakia hartu zen.

Kontseiluaren eta horren barne-organoen funtzionamendu-araudiak Osoko Bilkuran onartzeko izapidea gainditu zuen, eta Batzorde Iraunkorraren osaera (Batzordea osatzen duten pertsonen eguneratzeari lotua) berretsi zen. Dena dela, ijitoen aldeko erakundeen ordezkartzan izandako gorabehera batzuk konpondu zain, administrazioaren eta erakundeen araberako ordezkartza ez zen aldatu.

Horrez gain, erabaki bana hartu zen Kontseiluaren eta Koheslan eta Ikusbide proiektuetako lantaldeen arteko lankidetzaren inguruan, eta lantalde horiek egiten ari ziren azterlanen inguruan. Erabaki horiek lantaldeekin lankidetzan ziharduten pertsonak bete beharreko zeregina eta funtzioak argitzeko hartu ziren.

289/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Kontseiluaren bigarren osoko bilkura zegoen aurreikusita. Martxoko osoko bilkuran aurkeztutako proposamen bati jarraiki, urteko hirugarren hiruhilekoan egin nahi zen bigarren bilkura hori. EAEko ijito herriaren egoerari buruzko azterlana Osoko Bilkuran aurkezteko interesa kontuan hartuta, eta kalkulaturakoaren arabera azterlan hori urrian edo azaroan amaituko zenez gero, bigarren Osoko Bilkurarako deialdia atzeratu egin zen. Azkenik, azterlana amaitu eta abenduaren erdialdean helarazi zitzaion Gizarte Ongizate Zuzendaritzari, baina data hori ez zen egokia Osoko Bilkurarako deialdia egiteko.

b) Batzorde Iraunkorra

Esan bezala, martxoaren 20ko Osoko Bilkuran Batzorde Iraunkorraren osaera berretsi zen, deialdi bizkor bat egiteko, agenda eraginkor bati hasiera emateko eta, era horretan, lan-batzordeen osagarriarekin, Planari bultzada bat emateko. Osoko bilkuretarako deialdiak Batzorde Iraunkorrerako deialdiekin txandakatzeko hasierako asmoari eutsiz ekainean Batzorde Iraunkorrerako deialdia egitea aurreikusi bazen ere, azkenean deialdia ez zen data horretan egin. Geroago, Kontseiluaren Osoko Bilkurarako deialdia aurreikusita zegoenez gero, Batzorde Iraunkorrerako deialdia Osoko Bilkuraren dataren mende geratu zen, baina azkenean ez zen ez bata ez bestea egin.

Plana ebaluatzeko prozeduran eta egutegian, eta Plana eguneratzeko aurreikuspenetan (bigarren plan hipotetikoa egiteko aukera barne) lan egin beharra dagoenez gero, batzordeak 2007. urtean bere funtsezko funtzioari berriro ekingo diolakoan eta bi alderdiak lantzeko plataforma izango delakoan gaude.

c) Lan Batzordeak

289/2003 Dekretuaren arabera, Kontseiluak izaera operatiboa izango du eta, horretarako, Planean bildutako gaikako eremuei lotutako lan-batzordeak sortzeko aukera aurreikusten du. Ondoren, Kontseilu honetan diharduten batzordeen jarduerak zerrendatu eta deskribatuko ditugu gaingiroki.

Batzordeek egindako bilera guztietan landutako edukien laburpena jasota dago dokumentu batzuetan. Dokumentu horiek akta publikoak ez badira ere, batzordeen jarduera zehatz-mehatz ezagutzeko interesa dutenek eskatu ahal izango dituzte.

• Ijito Batzordea

Ijito Batzordea ijitoen elkarteen ordezkariak baino ez dute osatzen, eta jardunen inguruko proposamenak balioestea eta Kontseiluari proposamen horiek egitea da haren oinarrizko funtzioa, betiere Planean Ijito Komunitateari lotutako erakundeak eta Ijito Komunitatea nabarmentzeko beste hainbat erakunde eragile erantzule hartzen diren jardunak badira.

2006. urtean, Ijito Batzordeak lau bilera egin ditu, urtarrilean, martxoan, irailean eta abenduan, denak Gasteizen. Bilera horietan, landutako gai nagusiak honako hauek izan dira, besteak beste:

- EAEko ijitoen elkarteek Ijito Herriaren Estatuko Kontseiluaren sorrera dela-eta abian jarritako hautaketa-prozesuan izandako parte-hartzea, eta horretarako txartelak ematea.
- Planean –eta kulturaren eremuan– ijito herriaren historiari eta hizkuntzei buruzko argitalpen bana editatzeko kontuan hartutako jardunen garapenean izandako parte-hartzea.
- Europako ROMAn proiektuan izandako parte-hartzea. Proiektu horretan, Eusko Jaurlaritza ordezkatuta dago Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren bitartez, Kontseiluaren Idazkaritzaren bidez.
- EAEko ijito herriaren egoerari buruzko azterlanean izandako parte-hartzea. Gizarte Ongizate Zuzendaritzak Ikusbide elkarteari esleitu dio azterlan hori egiteko zeregina.
- EAEko Ijito Herriaren Egunean (azaroaren 16an) egindako ekitaldien plangintza, garapena eta ebaluazioa. Gasteizeko jardunaldiak ekitaldi horien barnean hartuta daude.

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren* osaeran alderdi soziala berritzeko prozesua.
- Planak Lurraldeetan eta EAE osoan egin duen ibilbidearen jarraipena.

- **Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea**

Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordeak lau bilera egin ditu guztira 2006. urtean, hain zuzen ere otsailean, ekainean, urrian eta azaroan, denak Donostian.

Batzordearen jarduera gehienak 2006an Gasteizen egindako urteko jardunaldien diseinuari, kudeaketari eta ebaluazioari lotutakoak izan dira (ikus horri buruzko berariazko atala geroago). Jardunaldien kudeaketarako, diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu zaio Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari, dagokion deialdiaren esparruan.

Batzuetan, Batzordeak Ijito Batzordeari kontsulta egin dio, edo bestela, haren esku utzi du zenbait jardun gauzatzeko moduaren gaineko erabakia. Horixe gertatu da Planean ijito-komunitateen hizkuntzaren eta historiaren inguruan aurreikusitako argitalpenekin (3.1.3.2 eta 3.1.3.3 jardunak, hurrenez hurren).

Batzordean landutako beste gai bat komunikabideek betetzen duten zereginari eta ijito-komunitatearen inguruan helarazten dituzten mezuei lotutakoa izan da. Gaia landu ondoren, ekainaren seian bilera bat egin zen EiTbko zuzendaritzarekin eta zenbait profesionalekin eta arduradunekin. Bilera hartan, ijitoen elkarteek kezka helarazi, eta gai horren inguruan kontu handia izatea eta ijitoen kulturaren elementu aberasgarriak neurri handiagoan erakustea eskatu zitzaizkien.

Azken alderdi horri dagokionez, eta elkarteren batek 2005eko jardunaldien inguruan aurkeztutako demanda kontuan hartuta, Batzordeak, Idazkaritzarekin batera, kanpoko komunikazioari buruzko ikastaro bat diseinatu zuen Kontseiluaren barruko ijitoen elkarateentzat eta ijitoen aldeko elkarateentzat (ikus geroago).

Batzordeak, halaber, Interneten bitartez Kontseiluari eta Planari buruzko hainbat informazio emateko formulak eta edukiak balioesteko tarte bat hartu zuen. Lan horren emaitza gisa, zenbait dokumentu, deialdi eta abar irauli dira www.euskadi.net/ijitoak web-orrian, eta hemendik gutxira www.ijitoak.info web-orria egongo da prest (gaur egun, diseinua egin dago eta programazioaren inguruan ari dira lanean).

Azkenik, kanpoko beste ekimen batzuen zabalkundean eta hainbat eragilek sustatutako ekitaldietan lagundu du batzordeak. Eragile horietako batzuk ez dute inolako loturarik Kontseiluarekin, baina bat datoz zenbait helburutan. Adibidez, Pirritx eta Porrotxen "Maite zaitut" ikuskizunaren edukiak berrikusten (Gao Lacho Drom eta Kalé dor Kayikó elkarteek bereziki) eta ikuskizun horri lotutako DVDa eta CDa zabaltzen lagundu du.

- **Osasun Batzordea**

2005eko ekainean sortu zen, Osasun Sailak egindako eskaera bati erantzunez, Planaren osasun-eremuko jardunak zehatzago definitzeko, eta horren inguruan proposamen operatiboak egiteko.

Horretarako sortutako lantaldeak hainbat alditan bildu ziren. Azkenik, batzordea 2005eko azaroan bildu zen Gasteizen, proposamenak adoste aldera. Ondoren, proposamen horiek Osasun Sailari eta Droga Gaietako Zuzendaritzari helarazi zitzaizkion, 2006an ezartzeko.

2006. urtean, Osasun Sailak ez du jardun horiek onartu eta abian jarri izanaren berri eman, eta ez du Osasun Batzordea biltzeko beste deialdirik eskatu. Batzordeak jardunen definizio zehatzagoa eta eraginkorragoa egiten laguntzeko hasierako helburua bete zuen, baina Osasun Sailak helarazitako proposamenei eman beharreko erantzuna falta da oraindik.

Droga Gaietako Zuzendaritzari dagokionez, batzordeak planteatu zizkion jardunak abian jarri dituela jakinarazi du.

Azkenik, aipatu beharra dago batzordeko hainbat lagunek bi esku-hartze eremutan (hots, osasun mentalean eta GIB-Hiesean) lan egiten jarraitzeko interesa agertu zutela. Hala ere, Osasun Sailak erantzun ez duenez gero, batzordea biltzeko beste deialdirik ez da egin, eta ijitoen elkarteetan eta ijitoen aldekoetan beren proposamenek eraginkortasunik ez dutelako sentazioa sortu du horrek.

- **Etxebizitza Batzordea**

Etxebizitza Batzordeak lau bilera egin zituen 2006an, hain zuzen ere urtarrilean, otsailean, apirilean eta uztailean, denak Bilbon, Gasteizen egindako azkena izan ezik. Batzordearen jarduerak honako alderdi hauek izan ditu oinarri, besteak beste:

- Nafarroako Gizarteratzeko Etxebizitza Programaren aplikazioari eta funtzionamenduari buruzko araudiaren berri izatea, etxebizitza-arloko praktika egoki gisa eta EAEn izan dezakeen aplikagarritasuna balioesteko. Horretarako, Nafarroako GOFeko teknikari baten eta kudeaketan laguntzen duten bi erakunderen (CCOO eta Secretariado Gitano Fundazioa) ordezkarien laguntza jaso du.
- EAEn etxebizitza publikoa lortzeko aukerari buruzko araudia berrikustea, premia handiko egoerei eman beharreko erantzunari dagokionez, eta Planaren 3.7.1.3 jardunean aurreikusitakoaren ildotik. Bereziki, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki etxebizitza salbuespen gisa zuzenean esleitzeko prozedura berrikusi da. Egoera horiei emango zaien erantzunaren ondorioetarako, arlo horren inguruko udal-ekimenaren zeregina eta Etxebizitza Sailaren eskusibotasunik eza jaso da batzordean.

- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak abian jarritako ekimen berriak eta ijito-komunitateari lotutako erakundeek arlo horretan laguntzeko bideak ezagutzea. Adibidez, honako hauek aipa daitezke: Alokabideren ASEA (errentarien jarraipen bereziko arloa) eta Sailak 2006-2009ko Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriari dagokionez aurreratutako formula berriak (hala nola *zuzkidura-etxebizitza* deitutakoa).
- EAEko Oinarrizko Errentari buruzko araudiari eta etxebizitza bat jabetzan eskuratzearekin bateraezinak diren egoerei lotutako proposamenak egitea, berrikustea eta balioestea.

2006ko bigarren seihilekoan Etxebizitza Planaren arau bidezko garapenean aurrera egiteko eta EAEko ijito herriaren egoerari buruzko azterlana urrirako amaitzeko aurreikuspena kontuan hartuta, bi gai horiek batera lantzeko bilera bat egitea aurreikusi zen, baina ez da deialdirik egin bilera horretarako, 2006-2009ko Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriaren arau bidezko garapena atzeratu egin baita.

KONTSEILUAREN BESTE ZENBAIT JARDUN

Dela Osoko Bilkuran, dela batzordeetan, Kontseiluak garatutako jarduerarekin batera, ezin dugu aipatu gabe utzi zenbait jardunen gauzatzea edo abiaraztea, Planaren aurreikuspenak betetzearekin lotutakoak izanik. Hala ere, Kontseiluari lotutako eragile guztientzat izan duten, duten edo izango duten inplikazioa ikusita, Kontseiluari, oro har, dagozkiola esan dezakegu, abian jartzeaz arduratu den eragilea bata edo bestea izan.

- **EAEko Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlana**

Planaren hasierako paragrafoetan onartzen da ez dagoela nahikoa informaziorik Plana idazteko garaian, eta helburu orokorretan lehenengoa honako hau ezartzen da: “EAEko ijitoen komunitatearen egoerari eta ijitoen komunitatearekin egiten diren jardunen ondorioei buruzko jakintza zabaltzea, alderdi bakoitzean egiten diren aurrerapenen adierazleak sortu eta hobetzea, eta zeharkako ikuspegiak txertatzea (generoarena adibidez)”.

Planaren 3.4.1.1. jardunean azterlan bat egitea aurreikusten da, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokio azterlan horren erantzukizuna. Egin beharreko izapide administratiboak egin ondoren, Ikusbide Elkartea kontratatu zuen Sailak azterlan hori egiteko.

Azterlanaren kontratazio formala 2005eko abenduaren 16an sinatu zen, eta azterlana 2006. urte osoan egin da. Hortaz, hasierako kalkuluak gainditu egin dira eta Kontseiluaren jardueraren egutegia nahastu egin da nahi gabe. Azkenean, Gizarte Ongizate Zuzendaritzarekin itundutako produktuak abenduaren erdialdean eman ziren. Data horretan, partzialki bada ere, lantzeko prozesua amaitutzat hartu zen.

Ikusbide Elkartearen ikerketa-taldeaz eta beste laguntzaile batzuek gain, kanpoko aholku-batzorde bat eratu zen, azterlanaren jarraipena egiteko eta kontraste-elementu gisa aritzeko, azterlana helburuei atxikitzen zaiela ziurtatuz. Batzorde horretan, honako hauek izan ziren partaide: Ijito Komunitateko hainbat ordezkari, EAEko ijitoen aldeko erakundeetakoak, EHUko profesionalak, eta Ijito Komunitateari lotutako beste hainbat lagun, lehengo edo oraingo erantzukizunen arabera.

Azterlana esleitzeko deialdian jasotako baldintzetako baten arabera, ijitoen elkarten eta ijitoen aldeko elkarten, eta Kontseiluaren Idazkaritzaren artean lankidetzan jardun beharra zegoen, prozesu osoan izan duten lankidetzan, hain zuzen ere.

Azken dokumentuetan, txosten metodologikoa, txosten diagnostikoa, proposamen operatiboei buruzko txostena eta datu-baseei buruzkoa daude jasota. Txosten horiek, lan-tresna gisa txertatuko dira aurki Kontseiluaren baitan, eta, ziur aski, www.euskadi.net/ijitoak web-orrian ezagutaraziko dira, edukiei dagokienez muga batzuekin agertuko badira ere. Zalantzarik gabe, baliagarriak izango dira EAEko Ijito

Komunitatearen egoera, premiak eta interesak zein diren hobeto jakiteko, eta eragile guztiek egin beharreko jardunak egokitzeke.

- **“Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herria: aniztasunaren alde, diskriminazioaren aurka” Jardunaldiak. Gasteizen, 2006ko azaroaren 14an eta 15ean.**

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Euskal Planak proposatzen duen berariazko lehen jarduna honako hau da (3.1.1.1): kulturarteko gizarteko askotariko nortasunei eta denon balioei buruz eztabaidatzeko urteko jardunaldiak egitea. Jardunaldi horien bitartez, kulturarteko gizartean dauden askotariko nortasunen eta denon balioen inguruko elkarrizketa kritikoa eta gizarte-arloko eztabaida zabaltzen lagundu nahi da.

Planean Jardunaldi horien gaineko erantzukizun guzti-guztia, oro har, Kontseiluaren gain eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren gain geratzen denez gero, Jardunaldien edukien eta formatuaren gidoi-proposamena egiteko ardua Kontseiluaren Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordeak hartu zuen, Jaurlaritzaren Sail hori batzorde horretako partaide izanik.

Jardunaldiak finantzatzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak proposatutakoa kontuan hartuta, diru-laguntzaren eskabidea bideratu zen eta Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari aurkeztu zitzaion, zegokion deialdiaren esparruan. Batzordearen erabakian jardunaldiak Gasteizen egitea jaso zenez gero, bertako Gao Lacho Drom izeneko ijitoen elkarteak eskatu zuen diru-laguntza.

Elkarte horrek Sekretariado Gitano Fundazioaren laguntzarekin landutako zirriborro batetik abiatuta, Jardunaldien gidoi-proposamena egin zuen Batzordeak, honako hauek zehaztuta: Jardunaldien helburuak, hizlariak, ekitaldien tokiak eta egunak, hartzaile izan zitekeen publikoa, irudiei eta irudikapen grafikoari buruzko alderdiak eta abar.

Jardunaldien gai nagusia honako hau izango zela hitzartu zen: tratu-berdintasunaren sustapena eta diskriminazioaren aurkako jarduna, betiere kulturarteko gizartean dauden askotariko nortasunen eta denon balioen inguruko eztabaidari egindako ekarpenaren ikuspegitik begiratuta, eta gaia herri-administrazioei zein ekimen sozialeko erakundeei lotutako ekimenen inguruan kokatuta.

Jardunaldiak 2006ko azaroaren 14an eta 15ean egin ziren, Gasteizko Villasuso Jauregian. Jardunaldien programa zehatza eta Jardunaldietan eskainitako material gehienak (txostenak, lan-taldeen laburpenak eta abar) www.euskadi.net/ijitoak web-orrian daude eskuragarri.

Jardunaldietara bertaratutakoen kopurua irregular samarra izan zen. Izan ere, jende asko goizeko saioetara, arratsaldekoetara edo tailerretara baino ez zen joan. Nolanahi ere, bertaratutako lagunen guztizko kopurua 241 izan zen. Horietatik, % 40 gizarte-laneko eta/edo gizarte-hezkuntzako ikasleak izan ziren, % 38 Kontseiluari lotutako erakundeetako pertsonak, eta gainerako % 22a osatzen zutenak honako hauek ziren:

ikastetxeetako eta lanerako prestakuntzako zentroetako profesionalak, beste gizarte-erakunde batzuen ordezkariak, komunikabideenak, eta EAEko herri-administrazioetako kideak (horietako talde bakoitzaren proportzioa % 2-3 inguru izan zen).

Oro har, Jardunaldien balioespina ona izan zen, ia-ia oso ona, batetik hamarrera bitarteko eskalan batez beste zazpi eta zortzi puntu bitarte lortuta.

Bertaratuek honako alderdi hauek azpimarratu zituzten bereziki: Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearen (ECRI) ordezkariak, Secretariado Gitano Fundazioaren ordezkariak eta lantaldeak eskolako eta inguruneke esperientziei buruz emandako komunikazioak. Horiek ez ezik, honako hauek ere positibotzat hartu zituzten: gazteen partaidetza (ijitoena zein ijitoak ez zirenena), ijitoei emandako protagonismoa eta, bereziki, emakume ijitoen nabarmentzea. Kataluniako Generalitatearen Ijito Komunitatearen Arretarako Unitatearen ordezkaria bereziki aipatu zuten.

Hobetzeko moduko alderdiei dagokienez, alderdi metodologikoak (azalpenen bizitasuna) eta herri-administrazioen ordezkariak urria aipatu zituzten.

Batzordeak, bestalde, deitoratu egin du erakunde publikoen ordezkari gutxi bertaratu izana (neurri batean, jardunaldiei buruzko informazioa berandu samar zabaldu zelako gertatu da hori), eta, hobetzeko helburuen artean, honako hauek planteatu ditu: mahainguruak dinamizatzea, txostenen edukiak hain generikoak ez izatea eta Kontseiluaren eta Planaren interesetara neurri handiagoan egokitzea, eta elkarrekin koordinatzea eta jardunaldien garapenean inplikatzeko (zabalkundea, kudeaketa-zereginak eta abar). Halaber, jardunaldietan azaldutakoaren arabera, diskriminazioaren eta tratu-berdintasunaren sustapenaren esparruan sareko lana falta dela geratu zen agerian, Batzordearen ustez.

- **Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra**

Planaren 3.5.1.4 jardunean aurreikusitakoari jarraiki, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluak* Gao Lacho Drom izeneko ijitoen elkarteko Olga Borja Borja izendatu zuen 2006ko martxoaren 20an *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren* ordezkari Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorrean.

Deialdiaren komunikazioan izandako gaizkiulertu baten ondorioz, pertsona horrek ezin izan zuen parte hartu adierazitako dataren ondoren (ekainean) deitutako lehen bileran. Okerra zuzendu ondoren, urrian egingo zen bigarren deialdi baterako deialdia egin zitzaion, eta aurreikusi bezala hartu zuen parte bilera hartan. Bileraren aurretik, interesdunak eskatuta, Idazkaritzak gai-zerrendari, laneko dokumentuei eta abarri buruzko informazioa bidali zien Kontseiluko ijitoen elkarteei eta ijitoen aldekoiei, bilerarako aurreikusitako gaiak aztertzeko. Gai horien artean, honako hauek aipa daitezke: 2007-2009ko Gizarteratzeko II. Euskal Planaren oinarritzko estrategia-ildoak, eta *Etxebizitza*

Prestazio Osagarria arautzeko Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legearen aldaketaren zirriborroa.

- **Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua**

Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuan aurreikusitakoari jarraiki, Kontseilu horrek gonbidapen formala helarazi zion *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluari*, 2006ko azaroaren 29ko osoko bilkuran parte hartzeko, hitzarekin, baina botorik gabe. Bilera hartan, etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeei harrera egiteko baliabideak arautzen dituzten dekretuak, Haurren eta Nerabeen Behatokia eta Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoa landu ziren, besteak beste.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren barruan lehendakariorde Bartolome Jimenezek betetzen duen ordezkari-tza-zeregina kontuan hartuta, bera bertaratu zen Kontseiluaren izenean, eta Osoko Bilkurak beste pertsona bat Kontseiluko ordezkari izendatzeko aukera etorkizuneko deialdietarako geratu zen.

- **ROMAIn proiektua**

Planean zehaztutako helburu orokorretako batean, praktika egokiak identifikatzea aipatzen da, alor guztietara eramateko. Helburu horri jarraiki, 2005eko martxoaren 23ko Osoko Bilkuran jakinarazi zenez, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak bat egin zuen honako proposamen honekin: *Europako Batzordearen Enplegu eta Gizarte Gaietako Zuzendaritza Nagusiaren VP/2004/004 deialdiaren* proposamenarekin, *Kataluniako Generalitateko Ongizate Sailaren Jardun Komunitario eta Zibikoen Zuzendaritza Nagusia* buru den *Proyecto ROMAIn Project* ("Roma herritarrek/Ijitoak European Gizarteratzeari buruzko Politikak: Gizarte-arloko esku-hartze arrakastatsua lortze aldera) izenburupean.

Honako hauek ere parte hartu dute proiektuan: Andaluziako autonomiako administrazioek, Kataluniako hainbat udalek, Bartzelonako Unibertsitateak, Errumaniako Roma herritarrentzako Agentzia Nazionalak, eta Europa mailako Ijito Komunitateari lotutako hainbat erakundek (egoitza Belgikan duen ERIO, European Roma Information Office, eta egoitza Finlandian duen IRWN –International Roma Women Network–).

Ijito-herria European gizarteratzea lortu nahi du proiektuak, esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta, eta nazioz gaindiko lankidetzaren bitartez, gizarteratzeko politiken diseinuan eta aplikazioan berrikuntzak sartzea. Horretarako, European ijito herriarekin politikak (Europako politikak eta hainbat administrazioen esku-hartzeak) aztertzeko eta ezagutarazteko asmoa du; ijito-herriarekin arrakasta izan duten esperientziak, eta gizartearen eta irakaskuntzaren eremutik gizarte kulturantzera esku hartzeko metodologia egokiak identifikatzeko; hainbat gizarte-eremutatik ijito herria barnean

hartzeko politiken inguruko esperientzia elkartrukatzeko eta eztabaidatzeko; eta lan horren guztiaren emaitzak, produktuak eta prozesuak ezagutarazteko.

Helburu horrekin, esperientziak biltzeko eta ondoren aztertzeko lan nekeza egin da (gure kasuan, EAEko ingurunean ez ezik, Errioxan eta Nafarroan ere egin da bilketa). Halaber, ikasteko aukera eman dezaketen funtsezko elementuak bereizi dira, esku-hartze arrakastatsua lortzeko. Gainera, nazioarteko lan-bilera bat egin zen irailean gainerako bazkideekin.

Idazkaritzak egindako lanaz gain, EAEn Kalé dor Kayikó elkarteko pertsona batek kanpoko Aholku Batzordean hartu du parte (kontseilu hori ijitoek baino ez dute osatzen).

Proiektu horretan izandako parte-hartzearen emaitzak aurki ezagutaraziko dira, horretarako sortutako web-orrian: www.romainclusion.org. Gainera, Romà herritarrak Europan gizarteratzeko praktika egokien gida jasoko duen argitalpena 2007ko ekaina inguruan prest egotea espero dugu.

- **Koheslan Ikerketa Taldea/Proiektua (EHU)**

Duela hiru urte inguru, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Soziologia 2 Saileko ikerketa talde baten ekimenez, hainbat diziplina akademikotako eta esperientzia profesionaletako pertsonak osatutako *Koheslan Kohesio Sozialerako Ikerketa Taldea* sortu zen EHU, desabantaila-egoeran dauden gutxiengoan egoera hobetzen laguntzeko asmoz.

Koheslan akronimo bera baliagarria da taldearen lehen jardunetako bat identifikatzeko: *Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan ikerketa komunikatiboko proiektua*. Ikerlana garatzeko, Kontseiluaren laguntza eskatu zuen taldeak, Ijito Herriaren inguruko gaietan aholkularitza emateko, eta Manuel Vizarraga izendatu zuten ijitoen elkarteek eginkizun hori betetzeko. Osasun arazoak direla-eta, Oscar Vizarraga semeak hartu du, aldi baterako, Manuel Vizarragaren lekua.

Ijito Komunitateko kide eta etorkin konprometituek, hezkuntza-arloan, pedagogian eta gazte-enpleguan adituak diren eragileek eta, azkenik, unibertsitateko irakasleek eta ikertzaileek hartu dute parte proiektuan, EAEko zenbait ikastetxerekin batera.

Manuel Vizarragaren bitartez Kontseiluarekin izandako lankidetzaren ondorioz, proiektuaren testuak gainbegiratu, eztabaidatu eta zuzendu dira, batik bat, Euskadiko ijito herriaren bizitzaren berri ematen duten testuak eta neska-mutil ijitoekin elkarrizketatzeko gidoiak. Gainera, egoki irizitako kasuetan, senitartekoekin bitartekotza-lanak egin dira.

2006. urtean, ikerketa komunikatiboko proiektuaren lehen zatia argitaratu zen: *“Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan: ikerketa komunikatiboko proiektua”* (www.koheslan.org web-orrian dago eskuragarri). Zati horrek proiektuaren oinarri teorikoak eta metodologikoak biltzen ditu. 2007an, berriz, jarraipena argitaratzea aurreikusita dago (Memoria hau amaitu den unean argitaratu da dagoeneko): *“Euskal ijito eta etorkinak nerabezaroan: zentzuzko diagnostikoa” ikerketa komunikatiboko proiektua*. Dokumentu

horrek *eraldatzeko asmoko esperientzia komunikatiboan* oinarritutako bizitza duin eta kalitateko baterako proiektu batera bideratutako azterketa diagnostiko bat jasotzen du.

Dokumentuak Kontseiluaren eta Planaren helburuetarako duen interesa dela-eta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak laguntza eman du argitaratzeko.

- **Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua**

Uztailaren 22ko 891/2005 Errege Dekretuak *Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua* sortzen eta arautzen du, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikita, eta politika publikoetan, orokorretan eta espezifikoetan partaidetzako eta aholkularitzako taldeko organotzat definitua, betiere politika horiek Estatuko ijitoen erabateko garapenerako badira.

Estatuko Kontseilua arautzen duen Dekretuaren arabera, guztira 20 kidek parte hartuko dute ijito-elkarteen mugimenduaren ordezkari. Estatuko Kontseilu horretan nor eta zer erakunde ordezkatzuz parte hartuko duen zehazteko, hautaketa-prozesu bat ireki zuen Ministerioak, TAS/3795/2005 Aginduari jarraiki araututa.

EAEko ijitoen elkarteei dagokienez, Iniciativa Gitana eta Kalé dor Kayikó izenekoek eskatu zuten parte hartzea. Hori ez ezik, *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluak* bertan parte hartu izana egiaztatuko zuen dokumentua egitea ere eskatu zuten.

2006ko martxoaren 22ko Ebazpenaren arabera, Iniciativa Gitana elkarteak Estatuko Kontseiluan parte hartzeko hautatu zuten. Parte-hartze hori *Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua* ordezkatzuz egiten ez bada ere, bere ahalmenen neurrian Kontseiluari Estatuko Kontseiluaren jardueraren berri emateko konpromisoa hartu zuen Iniciativa Gitana elkarteak. Konpromiso horri jarraiki, batzorde iraunkorra eta kulturaren, hezkuntzaren, enplegu eta gizarte-ekintzaren, osasunaren eta etxebizitzaren arloko lan-batzordeak abian jarri izana jakinarazi du Iniciativa Gitana elkarteak.

KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOAK

Idazkaritza Teknikoaren egitekoak honako hauek dira: Kontseiluaren Osoko Bilkurak eta Batzordeak dinamizatzea eta horietan laguntzea, haien funtzionamendua sendotzearen eta helburuak lortzera bideratutako lana erraztearen; Kontseiluari laguntzea Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten; eta EAEn eta EAetik kanpo, ijitoen errealitateari buruzko informazioa kudeatzeko sistema bat abiaraztea. Idazkaritza, beraz, Kontseiluaren zerbitzura dagoen tresna da, eta Kontseiluak berak esleitutako funtzioak ditu, Kontseiluari bere helburuen lorpena errazteko eta ahalbidetzeko.

- **Kontseiluari laguntzea.**

Aipatu ditugun egiteko horietatik lehenengoari dagokionez, Kontseiluaren —bai Osoko Bilkuraren, bai Batzordeen— lanarekin lotutako eginkizun iraunkorrak hartu ditu bere gain Idazkaritzak, baita Osoko Bilkuraren nahiz Batzordeen deialdiarekin eta gai-zerrendarekin lotutako alderdiak ere, parte-hartzaile guztien ekarpenak bilduta, aktak idatzita, bileretarako lokalak kudeatuta, lanerako dokumentuak osatu edo ekarrita, etab.

Arestian aipatutako lan-batzordeak (Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordea, Ijito Batzordea eta Etxebizitza Batzordea) osatzen dituztenekin harreman jarraituak ezarri edo sendotu dira.

Gizarte Gaietako Saila eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritza aurreko guztiaren jakinaren gainean izan ditu beti Idazkaritzak, horien zuzendaritzapean jarduten baitu.

Ijitoen elkarteei eta ijitoen aldekoiei dagokienez, egindako lana galdera-sorta baten bidez ebaluatzea eskatu zuen Idazkaritzak ekainean. Ebaluazio horretatik ondorioztatzen denez, helarazten zaien informazioaren kudeaketan hobekuntzak egitea eskatzeaz gain (bileretarako deialdien, bilerak bertan behera uzteko erabakien eta igorritako informazioaren kasuan), Idazkaritzaren malgutasuna eta arreta egokia, eta harekiko harreman ona aitortzen dute.

- **Planaren jarraipena**

Idazkaritzari proposatutako bigarren helburuaren arabera, Ijito Herriaren Planaren barnean hartutako jardunen garapenaren eta gauzatzearen mailari, eta helburuen betetze-mailari buruzko txostenak izan behar ditu Kontseiluak, era horretan Planaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu, Planaren ildo estrategikoen eta helburuen garapenari eta gauzatzeari buruzko txostenak eta proposamenak egin, eta, bidezkoa bada, Jaurilaritzaren Kontseiluari aurkeztuko dion Plan berri bat landu ahal izateko.

Hori lortzeko, 2006ko Jardunen Urteko Programa lantzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko formularioak diseinatu ditu Idazkaritzak, baita urte horretako Jarraipen Txostena eta 2007ko Jardunen Urteko Programa lantzeko datuak biltzeko formularioak ere.

2007ko lehen hiruhilekoan, batik bat, honako mintzakide operatibo hauek izan dira informazio-iturri Planaren jarraipena egiteko: Jaurlaritzaren Sail bakoitzean, Planaren garapenean inplikaturako erakunde bakoitzean, eta Ijito Komunitateari lotutako erakunde bakoitzean alde zuzeneko identifikaturakoak.

Horren guztiaren osagarri, Idazkaritzak behar bezala hornitu du datu-basea, eragileek emandako informazioan oinarrituta jasotako datuak antolatzen, tratatzen eta ustiatzen.

Azkenik, aurreko urratsetatik ondoriozta daitezkeenez, Plana onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren akordioan aurreikusitako jarraipen-txostena eta jardunen urteko programazioko txostena egin ditu Idazkaritzak.

2006. ekitaldiko Jardunen Urteko Programari dagokionez, alde zuzeneko izapideak egin ondoren, 2006ko ekainaren 13an onartu zen, Jaurlaritzaren Kontseiluan.

- **Informazioa kudeatzea**

Idazkaritzaren hirugarren egitekoa honako hau da: Kontseiluko kideek eta, oro har, ijito herriaren sustapenean inplikaturako eragileek Euskal Autonomia Erkidegoan zein Estatuaren gainerakoan eta Europan garatutako sustapen-neurriei eta esperientzia esanguratsuei buruzko informazio eguneratua izatea.

Ildo horretan, informazioa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orriaren bitartez kudeatzeko proposamen baten inguruan ari dira lanean, informazio hori dinamizatzearen. Neurri batean, www.euskadi.net/ijitoak web-orria erabiltzen da oinarrizko informazioa iraultzeko (Osoko Bilkuraren aktak, Kontseiluari aplikatu beharreko araudia eta abar).

Erakunde mailako web-orri horretan nekez txerta litekeen informazio gehigarria (web-orri interesgarrietarako estekak, prentsa-albiste garrantzitsuak eta abar) zabaltzeko eta trukatzeko interesa dela-eta, domeinu propio bat gorde da, errazago kudeatuko den informazio-orri bat sortzeko (www.ijitoak.info, gaur egun programazio-fasean). Orri hori abian jarri bitartean, eragileei zuzenean bidali zaie informazio interesgarria, formatu elektronikoan edo posta-igorpen bidez. Halaber, informazio galkorrak edo zabaltzeko arintasun handiagoa behar dutenak trukatzeko blog bat sortu da aldi baterako: <http://ijitoak.blogdiario.com/>.

Halaber, Idazkaritzak badu direktorio bat Kontseiluari eta/edo Planari nahiz, oro har, ijito-komunitateari lotutako argitalpenak, dokumentazioa eta abar bidaltzeko, eta direktorio hori erreferentzia izan da Kontseiluak berak sortutako dokumentuak banatzeko (Planaren aleak, paperean edo CDan), baita Kontseiluz kanpoko iturriek sortutakoak banatzeko ere (EHUren parte-hartzearekin egindako ikerketen ondoriozko argitalpenen bat).

- **Beste ekintza batzuk**

Helburu komunak izanik ere Kontseiluko kide ez diren edo Planaren garapenarekin zuzeneko loturarik ez duten eragileekin hitz egiteko aukera erraztu die Idazkaritzak Ijito Komunitateari lotutako erakundeei. Adibidez, Arartekoarekiko edo ijito-komunitateari

lotutako beste elkarte batzuekiko (hala nola Bilboko Gazteleku eta Bidegintza elkarteekiko) lankidetzak aipa daitezke.

Idazkaritza, halaber, Kontseilua eta Plana Ijito Komunitatearen sustapenari eta partaidetzari arreta berezia ematen zaion foroetara edo eremuetara gerturatzeaz arduratu da, ondoren lortutako informazioa Kontseiluari lotutako elkarteekin eta beste erakunde batzuekin trukatzeko. Hona hemen adibide batzuk: Sekretariado Gitano Fundazioak otsailean eta urrian Madrilen antolatutako "Ijito Komunitatearen erakunde mailako onespena" eta "Ekitatea, osasuna eta ijito-komunitatea" mintegietan izandako parte-hartzea, Kataluniako Ijito Plana aurkezteko jardunaldia (Bartzelonan, apirilean), Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren eta Planaren aurkezpena Oviedon (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak maiatzean antolatutako ikastaro baten esparruan), eta Nafarroako ijitoen elkarten federazioak (Gaz Kaló) NUPekin lankidetzan Nafarroako ijitoekiko bitartekotza-programei buruz egindako Diagnostikoa aurkezteko jardunaldia.

Aurrekoaz gain, Idazkaritzak bere gain hartu ditu Kontseiluak Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren bitartez arestian aipatutako ROMAn proiektuan parte hartu izanaren ondoriozko zereginak, eta Ikusbide elkarteak EAEko Ijito Herriaren egoerari buruz egindako azterlana (arestian aipatutakoa) garatzeko elkarte horrekin gauzatutako lankidetzak. Lankidetzak horretan, erakundeekiko eta administrazioekiko harremanak errazteko egindako lana, informazio osagarriaren bilaketa eta azterlanaren Aholku Batzordean izandako parte-hartzea sartzen dira.

Hasieran aurrekusi gabeko beste jardun bat elkartei haien ekimenez antolatutako ekitaldiak antolatzeko eta/edo zabaltzeko eskainitako laguntza eta lankidetzak izan da, betiere elkarten ezinbesteko protagonismoaren mende. Horren adibideak ditugu Opré Rromá sariak emateko ekitaldia eta ikasturte amaierako jaialdia, ikasle eta familia ijitoen arteko topaketa, Kalé dor Kayikó elkartearen flamenko-jaialdi solidarioa, Iniciativa Gitana elkartearen ikasturte amaierako jaialdia, eta Sekretariado Gitano Fundazioaren Ofizio Etxearen (*Caminando*) amaierako ekitaldia Sestaon.

Kultura, Partaidetza Soziala eta Elkarbizitza Batzordeari buruzko atalean adierazi bezala, Idazkaritzak kanpoko komunikazioko ikastaro bat diseinatu eta kudeatu zuen Kontseiluko ijitoen elkarteentzat eta ijitoen aldeko elkarteentzat. Ikastaroa azaroaren 9an eta abenduaren 12an egin zen, Bolunta izeneko boluntarioritza-agentziako profesionalekin eta Bizkaiko elkarteekin lankidetzan. Kontseilua osatzen duten bost erakundeko hamasei lagunek hartu zuten parte ikastaroan.

Amaitzeko, adierazi beharra dago Ijito Komunitateari lotutako elkarteentzat ekimen sozialeko erakundeak diren neurrian interesgarriak izan daitezkeen informazioak helarazteko bidea ere izan dela Idazkaritza. Adibide moduan, *Bizkaiko Gizarte Esku-hartzearen Sektorearen* lehen *Hitzarmen Kolektiboari* buruzko informazioa, eta sektoreko erakunde nagusiak biltzen dituen erakundeari (Gizardatz) buruzkoa aipa daitezke.

- **Helburuak**

Azaldutako zeregin nagusi horiei eutsita, honako ildo hauetan aurrera egiteko asmoa du Idazkaritzak 2007. urtean:

Kontseilua. Kontseiluari lotutako eragileen arreta hobetzea, Kontseiluaren eta horren organoen zereginari lotutako eginkizunak betetzeko ardurari dagokionez (deialdiak, aktak eta abar). Ijito Komunitateari lotutako erakundeei dagokienez, informazio-zirkulua handitzea (Kontseiluan txertatzen direnak, eta txertatu gabe ere elkarren arteko lanean interesa dutenak abiapuntutzat hartuta).

Plana. Batzorde Iraunkorra indartzea, Planaren jarraipenari eta eguneratze-prozesuei lotutako alderdiak lantzeko: bigarren Plan hipotetiko bat ebaluatzea eta egitea. Udal-eremuan sortutako eskaerei eta proposamenei emandako arreta areagotzea. Horretarako, Planean gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat aurreikusten diren eta EAEko Ijito Herriaren egoerari buruzko azterlana amaitu ez delako oraindik egin ez diren prestakuntza-ekintzen garapena hartuko da hurbilketa errazteko elementu gisa.

Informazioa. www.iitoak.info web-orria erabat operatibo jartzea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orriak (www.euskadi.net/ijitoak) eskaintzen duenaren gune osagarri gisa, EAEn, Estatuaren gainerakoan eta Europan herri-administrazioek, ijitoen erakundeek, ijitoen aldeko erakundeek eta beste gizarte-eragile batzuek ijito herriaren inguruan garatutako araudiari, programei eta jardueri buruzko informazioa dinamizatzeke.